Así, y de la mano de Fundación Bizkaibasket y Mungialde, Mungia ST y Saskel tuvo lugar este encuentro deportivo plagado de actividades en el polideportivo J. A. Agirre. Por una parte, el Torneo Dos Generaciones en el que participaron parejas formadas por un menor de edad y un adulto,

y que consistió en conseguir el mayor número de tiros libres desde diferentes distancias en un tiempo determinado. Durante más de dos horas pequeños y mayores pudieron disfrutar de la práctica deportiva, todo ello enmarcado en un ambiente festivo, en el que además hubo la posibilidad de practicar otros deportes como el tiro con arco o el juego de las cajas con arnés. Asimismo, Malen Skate Kluba se unió a la causa y ofreció una exhibición de diferentes saltos y acrobacias con el monopatín en el aterpe de Legarda.

Los hijos de Fran Olea y Amaia Elgezabal, Andoni, Ibon, Janire y Xabier, fueron diagnosticados de Coroideremia, dolencia que en el caso de los chicos -en las mujeres no se desarrollan los síntomas- hace que vayan perdiendo la vista poco a poco. Hasta llegar a dicho diagnóstico, sufrieron una larga peregrinación por hospitales y especialistas, y una

vez conocida la enfermedad que afectaba a sus hijos, comenzó una verdadera lucha por salvar los ojos de sus pequeños: crearon la Asociación de Afectados por la Coroideremia y depositaron todas sus fuerzas, ganas y recursos económicos en una investigación genética que esperan pueda arrojar un poco de luz sobre esta enfermedad.

Entre las inscripciones al Torneo Dos Generaciones y las aportaciones particulares se consiguió una suma total de 1.000 euros que fue a parar directamente a la Asociación de Afectados por la Coroideremia, aportando así otro granito de arena a la costosa lucha que esta familia está llevando a cabo con tanto esfuerzo. Todo lo recaudado se aportará al Inserm de Montpellier, donde han realizado con éxito una primera prueba in vitro, que demuestra que se puede detener la pérdida de visión a través de la terapia génica. ■



## Mendekotasunen aurrean, prebentzinoa eta informazinoa dira tresnarik eraginkorrenak ◀

### V Plan de Prevención de Adicciones 2014-2018

El nuevo plan de prevención de adicciones de la comarca seguirá las líneas de trabajo de los planes anteriores, apostando siempre por la prevención como medida más eficaz contra el abuso de determinadas sustancias así como de ciertas actitudes o comportamientos que puedan derivar en una adicción. Como novedad, en este nuevo plan se incluyen las conocidas como "nuevas adicciones", relacionadas con las nuevas tecnologías y el juego patológico.



Adikzino guztien eta, batez bere, droga-mendekotasunen kontrako borrokan urteetan lanean ibili diran profesional eta herritar gehienak bat datoz prebentzinoa menpekotasunei aurre egiteko modurik onena dala esatean. Herritarrei informazino osoa eta eguneratua eskaintzea, lehenengo personan bizitako testigantzak ekartea, mendekotasunen bat daukienak edo sufridu dabenakaz behar egiten daben teknikari eta agenteen esperientzia... horreek guzti horreek herritarrei tresnak emoten deutseez sustantzien kontsumoaren aurrean edo jokabide batzuen aurrean erabagi zentzudunagoak hartzeko.

Bide horretatik, Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Partzuergoak 2014-2018rako Eskualdeko Prebentzino Plana osatuko dau laister, Euskal Erkidego Autonomoko VI. Adikzino Planaren (2012-2015) ildo nagusiak eta helburuak bilduko dituana. Bosgarren plan horretan, aurrekoetan bezala, prebentzinoaren aldeko apustua egingo da. Oraingo plan horrek dakarren barrikuntza hauxe da: "adikzino barriak" hartzen ditu kontuan, hau da, teknologia barriakaz eta joko patologikoagaz lotutakoak.

Planaren helburu nagusia droga-mendekotasunei erantzuna emotea da, prebentzinoaren garrantzia indartuta, baita lan-ildo barriak bilatzea bere herritarren bizikalidadea babesteko sustantzien kontsumoagaz lotutako erabagien aurrean.

Droga-mendekotasunen eta osterantzeko adikzinoen inguruan herrian egiten diran ekintza guztien sektorekako planifikazinoa eta koordinazinoa lortu gura da, interbentzinoen eraginkortasuna indartzeko eta prebentzinoan eta arretan emaitza positiboagoak izateko.

Plana hiru fasetan garatuko da: lehenengo, orain arteko ekintzen balorazino kritikoa egingo da; ostean, egungo egoeraren analisisa egingo da, inkestak osatuta, lekuko batzuei alkarrizketak eginda eta agente sozial batzuek foroak bideratuta; behin diagnostikoa eginda, ekintza-plana diseinatuko da, eta horretara, helburuak, metodologia, interbentzino ildoak eta ekintzak zehaztuko dira.

Planak zer eremu edo arlotan eragitea gura dogun eta non eta

zelan egingo dogun erabagiteko, interbentzinoak jarriko dira abian eskolan, familietan, komunitatean, osasun eta aisialdi arloetan. Plan hau umeei, gazteei, ikasleei eta, oro har, herritar guztiei zuzenduta egongo da.

Gogoratu daigun Mungialdeko Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoak Osasuna sustatzeko eta droga-mendekotasunari aurrea hartzeko heziketa-programak egiten dituala hainbeste eremutan: eskolan, familietan, gazteen artean eta komunitatean. Ganera, gaiaren ganeko informazinoa, aholkuak eta orientabideak emoten jakez kaltetutako personei, haien senitartekoei, ikastetxeei, alkarteei eta abarri. ■



## El plan operativo 2014 de igualdad entre mujeres y hombres pondrá en marcha 58 acciones concretas a lo largo del año ◀

### Mungiko andrak eta gizonak, parez-pare

Udalbatzak Mungia Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana aho batez onartu eta gero, urtarrilaren 31n urterotero Ekintza Plan osatzea erabagi eta aurtengoa onartutzat emon eban. Aurtengo ekintza planak 58 ekintza zehatz batzen ditu, lau ildo nagusitan sailkatuta: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako gobernantza, emakumeen ahalduntzea eta balore aldaketa, gizartearen antolaketa ardurakidea eta emakumeen kontrako biolentziaren prebentzinoa.



Tras la aprobación por unanimidad del III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Mungia el pasado 31 de mayo de 2013, desde el Ayuntamiento se asumió la responsabilidad de aprobar anualmente un Plan Operativo en el ámbito de la Igualdad de Oportunidades. Así, hace pocas semanas se aprobó en pleno municipal el plan operativo de 2014.

En ese documento se contemplan 58 acciones enmarcadas en cuatro grandes líneas estratégicas: mejora de la gobernanza para la igualdad de mujeres y hombres; empoderamiento de las mujeres y cambio de valores; organización social corresponsable y prevención de la violencia contra las mujeres.

Una de las utilidades fundamentales de establecer un plan operativo radica en que es posible traducir

la estrategia global en el día a día, mediante las herramientas adecuadas y realizar un seguimiento exhaustivo del mismo, con el fin de evitar desviaciones en los objetivos.

El plan es desde luego ambicioso en cuanto al número de acciones que se quieren iniciar. Y es que la idea es dar comienzo a todas las iniciativas programadas, sin que su culminación sea de obligatorio cumplimiento. Cada una de las actividades tiene su razón de ser y su importancia dentro del plan operativo y pasado el presente año se llevará a cabo la valoración correspondiente que solo es posible si dichos proyectos o acciones se inician de alguna manera.

Así, entre otras muchas acciones, en breve se realizará un estudio monográfico pormenorizado sobre los usos del tiempo de mujeres y hombres y las necesidades específicas

de ambos para el desarrollo de su vida cotidiana. Mediante este estudio se pretende dar respuesta y ofrecer recursos adecuados a las situaciones y realidades de unas y otros.

Como siempre, la construcción de una sociedad más igualitaria entre mujeres y hombres hunde sus cimientos en la educación. El futuro lo protagonizarán los hoy niños y jóvenes, y qué mejor manera de garantizar un cambio de valores que respete y contemple una sociedad más justa y equitativa entre sexos que la de educarles en la igualdad. Para ello, el plan operativo de este año incluye estudios, talleres y actividades que buscan favorecer el desarrollo de la autonomía de las mujeres y la toma de conciencia de género. Además, queremos cambiar ciertos estereotipos y roles establecidos en función del sexo, dando lugar a un cambio de valores en el ámbito escolar, laboral y doméstico.

El texto íntegro con las 58 acciones está a disposición de quien quiera consultarlo en la página web municipal. ■





## Mungialdeko kaleko hezitzailea, gazteengandik paraje

### La educadora de calle de Mungialdea, cerca de los jóvenes

En 2012 se observó la necesidad de contar con una figura que ejerciese de puente entre los servicios municipales y la juventud. Así, desde el Consorcio de Servicios Sociales se puso en marcha un proceso de licitación para escoger a la empresa que llevaría a cabo dicha tarea. Tras algunos cambios, finalmente en septiembre de 2013 se incorporó una educadora de calle que desde entonces ha realizado un intenso trabajo. Su labor ha consistido hasta ahora sobre todo en conocer la realidad de las y los jóvenes en su propio entorno, en el escolar y en el de ocio, y detectar y recoger las necesidades, opiniones y demandas que presentan. A punto de acabarse esa fase, pronto se pondrán en marcha las iniciativas que nacerán de la información recabada estos últimos meses.

prozesuaren ostean, zerbitzu hori eskainiko eban enpresa bat kontratau zan. Gorabehera batzuen ostean, 2013ko irailean gizarte hezitzaile bat heldu zan gurera, ordurik hona lan sendoa burutu dauena. Partzuergoaren barruan dagozan Udalen -Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia- eta gazteriaren arteko zubi-lanak egingo ditu langile horrek. Horretarako, beste ezer baino lehen, bertako errealidadearen azterketa egiteari ekin deutso, gazteak hartu-emon zuzena daukien alkarleak jarri da kontaktuan eta horreetako 15egaz batzartu da. Zeregin horren barruan, nerabe eta gazteak hezitzen dabezan zentroak jarri da hartu-emonetan eta bertako irakasleak batzartu da. Euren eritxiak batu, beharizanak detektau eta eskariak jasoteko.

Udaleko arlo horretako langile teknikoak alkarlanean (batez bere kultura eta gazteria sailekoak eta bardintasan arloko eta drogamenpekotasunen prebentziorako teknikariak), hainbat jardueratan hartu dau parte; besteak beste, Ideia Jam Gazte Erabaki Party gazte foroan, Bardintasunean jolasten dogu? izeneko tailerretan eta Gaztelekuan antolatu zan Hiesa prebenitzeko, berba egin daigun sexuaz, guztiok egiten dogu ekimenean.

Izan bere, gazteriaren beharizanak jaso eta horreen harira ekintza eta programak proposatzea da langile honen egitekoa. Kanean edo Gaztegunean ibiltzen diran kuadrilak ezagutzea ezinbestekoa da helburu horretarako. Ganera, kontuan izan behar da kuadrila askok euren lonjetan emoten dabela denporarik gehiena, eta lonjetara bere hurbildu egin da lokalok bisitatzeko. Kaleko hezitzaile honen bitartez gazteen artean balore eta konpetentzia pertsonalak eskuratzea lortu gura da, gazte izate horren kudeaketa hobea izan daiten, beti bere prebentzinoa, ikastea eta parte-hartze soziala sustatuta.

Laster bertoko gazteen errealidadearen ezagutza-fasea bukatutzat emongo dogu eta orduan hasiko jarriko dira abian jasotako beharizanak eta kezketatik sortuko diran ekimenak; horretarako, kontuan izango dira bai gazteek bakarka azaldutakoak, bai eskola eta heziketa zentroetako langileek eta euroi lotuta lanean dabilzan alkarleak esandakoak bere.

Egitasmo hau eskualdeko Gazte Planaren barruan dago kokatuta, Bizkaiko Foru Aldundiagaz alkarlanean, izan bere, erakunde horrek diruz laguntzen dau proiektu hau. ■



2012an gazteengandik hurbil kanean lanean ibiliko zan hezitzailea beharrezkoa zala ikusi zan; hau da, gazteriaren beharizanak bertatik bertara ezagutzeko eurokaz hartu-emon zuzenean egongo zan langilea. Langile horren egiteko edo betebeharren barruan hori ez eze, beste batzuk bere ezarri ziran, hau da, aisialdiaren arloan prebentzino lanak egin, gazteen parte-hartze soziala sustatu, gazteek eskura daukiezan baliabide eta zerbitzuak ezagutzera emon eta horreetara bideratzea eta gizarte-bazterkeriarako arriskuak antzematea. Langile horren prestakuntza mailarako, gizarte hezkuntza eta kultura animazino profesionala izatea erabagi zan.

Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Partzuergoak, beharrezko lizitazio

## Talleres para padres y madres "Etxean hazi, etxean ikasi", "Aprende a enseñar". 6-12 años

### Gurasoak, irakasten ikasten

"Etxean Hazi Etxean Ikasi" programak aurrera jarraitzen dau Mungialdean, eta aurtengo zezeilean bere 6 eta 12 urte bitarteko umeen gurasoei zuzendutako tailer bat antolatu da. Bertan landu diran helburuak ondokoak izan dira besteak beste: autonomian hezi, umeek ardurak euren ganean hartzea eta abar. Martirako, barriz, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxuen gurasoentzako tailer bat egitea dago aurreikusita.

Educar no es tarea fácil. El Servicio de Prevención de Drogodependencias del Consorcio Mungialde de Servicios Sociales, que abarca los municipios Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Meñaka, Laukiz y Mungia, apuesta por apoyar a los padres y madres en esta difícil

tarea con el convencimiento de que "educar es prevenir". Así, en febrero comenzó el taller dirigido a padres y madres, con hijos e hijas de entre 6 y 12 años: se incide en la importancia de aprender a asumir responsabilidades, educar en la autonomía y en una adecuada gestión de las emociones y los sentimientos. Este año además el objetivo es impulsar los aspectos prácticos por lo que se dedica una sesión al análisis de casos reales donde se ponen en práctica las estrategias y pautas educativas aprendidas.

Con esa misma intención se puso en marcha el programa Etxean hazi etxean ikasi en el año 2003: año tras año se han ido impartiendo talleres organizados por edades; de 3 a 6, de 6 a 12 y de 12 a 16 años. Concretamente en el año 2013 participaron 74 personas con



una asistencia media por taller de 18 personas por sesión y con una valoración y grado de implicación muy positivo del programa.

En marzo está previsto un taller para padres y madres con hijos e hijas adolescentes de entre 12 a 16 años. Este taller pretende ser un espacio de reflexión sobre cuestiones para compartir dudas y preocupaciones sobre la adolescencia y encontrar criterios para la delicada labor de ser padres y madres. ■

## Emakumeok, gure defentsaren protagonistak

### Autodefensa para mujeres

El pasado 31 de enero se celebró un taller de autodefensa para mujeres en el que participaron más de 30 personas. De la mano de Miriam Herbón de Consultoría Sortzen, aprendieron a detectar agresiones y defenderse de ellas por sí mismas, con la ayuda de algunas pautas. Están previstos más talleres en esta línea para este año. Para apuntarse: 94.674.10.43 o berdintasuna.mungialde@euskalnet.net.


Urtarrilaren 31n Mungiaiko 30 emakumetik gora batu ziren Bardintasan Zerbitzuak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz antolatutako autodefentsa tailerlean. Bertan, Sortzen Aholkularitza erakundeko aditua dan Miriam Herbónen eskutik gizarteko hainbat arlotan jazoten diran indarkeria sexista motak detektatzen ikasi eben parte-hartzaileek: -"Aurrean dozona ezagutzen badozu, errazagoa da eraso saiheste, edo ezin bada, zerbait egin daitekeala jakitea bere

oso garrantzitsua da nire ustez. Defendatzeko eskubidea dogu" adierazi eban parte-hartzaile batek.

Tailerraren bidez emakumeen ahulezia-estereotipoa apurtzen saiatu ziran, biktima pasibo izatetik bere defentsaren protagonista dirala ikasita, defentsa pertsonalerako tresna erraz batzuen bidez. Aukera honeguz baliatuta, 16 eta 17 urteko neskek andre nagusiagoei azaldu eutsien gaur eguneko indarkeria sexista aurreko belaunaldietakoa baino askoz zolagoa dala.

Aurten era honetako tailer gehiago antolatu gura dira. ■

IZENA EMOTEKO:  
94.674.10.43  
edo  
berdintasuna.mungialde@euskalnet.net



## Mungia solidaria: proyectos de cooperación al desarrollo

Mungiako Udalak 1999tik hona urtero bideratzen dau bere aurrekontuen zati bat garapen bidean diran herrietan lankidetzaz-proiektuak garatzeko. Igaz bere hainbat ekimen abiatu ziran honi esker: Benineko ospitalea; Nikaraguako saneamendu-egitasmoa; Honduraseko emakumeen aldekoa; Tindoufeko umeena; Ghanako umezurtzak eta Baltistaneko hezkuntzaren aldeko ekimena.

1999 una partida presupuestaria para financiar proyectos de cooperación. En 2013 se llevaron a cabo los siguientes programas:

- Quinta fase del proyecto de construcción de un hospital en la región de Banikoara (Benín) a través de la Fundación Manuel Iradier (18.000 euros)
- Proyecto de Construcción del drenaje pluvial y saneamiento en el sector urbano de Tipitapa (Nicaragua) a través de Euskal Fondoa (10.000 euros).
- Proyecto de desarrollo productivo y empoderamiento de mujeres

campesinas de Cortes y Atlantida (Honduras)" a través de Manos Unidas (6.000 euros)

- Proyecto de Udaleku para los niños y niñas saharauis de Tindouf. Se han destinado 3.000 euros a la ONG Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe.
- Proyecto de apoyo y bienestar de niños y niñas del orfanato de Tutu (Ghana) a través de Sunrise África Bilbao (3.000 euros).
- Proyecto Malalah: educación con equidad y calidad para niñas y niños balties. Se han aportado 3.500 euros a Baltistain Fundazioa. ■

El Ayuntamiento de Mungia, como muestra del compromiso de solidaridad con los países en vías de desarrollo, viene dedicando desde

## Cómo dejar el tabaco a tu ritmo

Erretzeari ixteko programea jarri dau atzera martxan Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Partzuergoko Drogomenpekotasunen Prebentzino Zerbitzuak. Hiru hilabeteen zehar, apurka-apurka, ohitura hori etetea lortzen dabe parte-hartzaileen %80k.

Informazio gehiagorako:  
94-404.77.07

El Servicio de Prevención de Drogodependencias del Consorcio Mungialde de Servicios Sociales ha organizado el XVII Curso de Deshabitación al Tabaco.

El programa consta de 9 sesiones de 60 minutos cada una: 8 de ellas en un periodo de tres meses y la novena tres meses después de la última sesión, para consolidar y reforzar la deshabitación. El método utilizado es el de la reducción progresiva:

información, reflexión, cesación, seguimiento y por último abandono del hábito. Al finalizar el curso, un 80% de los participantes dejan de fumar.

El curso dio comienzo el pasado día 23 de enero y se está desarrollando bajo la dirección de Vicente Fernández, médico especialista en tabaquismo.

Más información: 94-404.77.07 ■

## Mungiarrek, koroideremiak kaltetutakoen alboan

El pasado 5 de enero celebramos por décimo año consecutivo la Fiesta del Rosco Solidario, esta vez recaudando dinero para una investigación que pretende dar una solución a tres hermanos mungiarrek afectados por la coroideremia. Esta enfermedad hace que pierdan la visión progresivamente, pudiendo llegar a la ceguera total. Los mungiarrek demostraron una vez más su marcado carácter solidario con sus generosas donaciones.

Aurten hamargarrenez antolatu dogu Mungian Errosko Solidarioaren Jaia, hau da, urtero egiten dana beharizan handia daben erakunde, proiektu edo personen onuratan.

Oraingoan koroideremiak kaltetutakoen alkartearantz izan da bertan bildutako guztia. Izan bere, Mungiako familia bereko hiru ume dagoz apurka-apurka ikusmen barik ixten dauen gaixotasun horrek jota.

Horri aurre egiteko, Montpellierren egiten ari diran ikerketa baten aldeko

apustua egin eben umeon gurasoek, eta horretara bideratu eben jaialdian bildutakoa bere. Talde horrek, gorputzetik kanpo erretina bat sortu nahi dau, ama-zelulen bitartez.

Urtero bezala, Errosko Jaia urtarrilaren 5eko arrastian ospatu genduan Andra Marin. 60 metroko erroskoa eta txokolate beroa eskaini ziran, euro baten truke. Ganera, askok eta askok euren solidaridadea erakutsi eben, prezioan jarritako dirua baino gehiago emonez. ■

## Mungiarrek bere saltsan

### Lapikoko Eguna 2014

Este año, como novedad, un grupo de mungiarrek campeones en diversos concursos de tortilla de patatas impartieron un taller para que las niñas y niños aprendieran a elaborar este plato. Además, el famoso participante ortuellarra de Masterchef Aimar Sanmiguel también se acercó a Mungia y todas y todos, pequeñas, pequeños y mayores disfrutaron, en su salsa.

Aurtengo San Antontxueta gero eta geureago dogun Lapikoko Eguna antolatu zan barriro bere Mungian. Laugarren edizino honetan, ganera, lapikokoa egiteko

beharrezkoak diran kalidazeko lehengaiak bezperako feria nagusian (San Antontxu eguneko ferian) erosteko aukerea izan genduan: berdurak, indabak eta odoloste eta txorizo saridunak, Mungiako Morga Harategiarenak euren artean. Domekan, herriko koadrilen lapikoak goizean-goiz hasi ziran borborka, eta euren usain ederrak Andra Mari eta inguruetako txoko guztiak euriak berak baino hobeto busti eta gozotu ebazan. Aurtengo bigarren eta hirugarren sariak Mungian geratu ziran: *Taket Bertsolari Taldea* eta *Kontrapas bai* koadrilentzat izan ziran, hurrenez hurren.

Oraingoan baina, apartekoa izan zan festa-giroa. Izan bere, Txispeleta Eskaut Taldearen eskutik,

umeentzako patata-tortilla tailerra bere egin zan. Irakasle-lanetan, hainbat eta hainbat txapelketatan nagusi izan diran mungiar batzuk izan genduzan: Arraultzaldean taldekoak. 2005etik hona Bilboko Aste Nagusiko tortilla txapelketa guztiak irabazi dabez, baita Bizkaian egin diran asko bere, eta BECeke Agosto Ferian antolatutako Nazioarteko Lehiaketan bere irabazle izan dira urte bitan. Txapelkunok hainbat tortilla egin eben, horreen artean 40 arrautzez eginiko tortilla ikusgarri bat. Ganera, konbidatu berezi bat bere izan genduan Mungian: oraintsu telebistan eskaini daben umeentzako sukaldaritza saio famadu baten parte hartutako Aimar Sanmiguel ortuellarra, eta bera bere hatxe ibili zan, fin, tortillak egiten. ■



### Campeonato de Tortillas

Los grupos que han quedado campeones de Bizkaia desde el año 2004 hasta nuestros días son de Mungia: Beti gozo, Arratzauldeon y Gozuena. Además, Goxuena y Arratzauldeon fueron campeones internacionales de txokos en la feria ALGUSTO 2013 que se celebró en el BEC.

## 25 años encestando ilusión en Mungia

### Mungia S.T. Klubaren 25. urteurrena

2013an Mungia Saskibaloitoki Taldeak mende laurena bete eban, baita egoki ospatu bere: argazki-erakusketa, bazkariak, txapelketak, solidaritatea eta, zelan ez, San Pedro jaietako pregoia euren esku. Aurrera begira saskibaloia harrobia bultzatu gura dabe, eta horretan dabilz lanean, ume eta nagusi, danak otzara berean.

Informazio gehiago:  
[www.mungia.org](http://www.mungia.org)

Mungia Saskibaloitoki Taldea acaba de alcanzar el cuarto de siglo en las canchas. Y es que la mungiarra es una afición con mucha historia. Los más veteranos aún recuerdan cuando en el frontón de Mungia se celebraban partidos de primera división con el Aguilas y Patronato como locales e incluso el Real Madrid, Estudiantes, etc. como visitantes.

El pasado 2013 Mungia S.T. celebró su 25 aniversario por todo lo alto, empezando por una gran exposición fotográfica, una retrospectiva sobre la historia del club, y lo que ha sido el baloncesto de toda la comarca todos estos años. En ella se pudieron observar imágenes de tantas y tantas celebraciones de éxitos como por ejemplo el ascenso logrado en 2013 por el equipo junior femenino a primera división en plenas fiestas de San Antontxu en dura competición con el equipo de Zalla.

Asimismo, el club participó el año pasado en la comida de hermandad, el Clinic para entrenadores, el torneo dos generaciones en favor de los afectados por la coroideremia, entre otras muchas actividades. Sin olvidarnos, por supuesto, de que fueron los pregoneros de las pasadas fiestas de San Pedro.

Los inicios de Mungia S.T. se remontan a 1988, cuando se fundó a iniciativa de los numerosos aficionados y aficionadas de Mungialdea, suponiendo un gran impulso para este deporte en la comarca. Durante estos años han sido muchas las generaciones de jugadores y jugadoras, tanto de Mungia como de los alrededores los que han pasado por este club, entre los que destacó Jon Iriondo, que llegó a jugar con la selección de Euskadi y en equipos profesionales.

Pero el espíritu de Mungia S.T. nunca ha sido el de destacar a las figuras. Es precisamente el espíritu de equipo, el que une sus fuerzas, se apoya en el compañero y ayuda al grupo el que ha mantenido a este club. Esa es su filosofía, y es la que le ha permitido seguir adelante y formar parte de la vida de Mungia durante los últimos 25 años, aunando a personas de cualquier condición, edad o sexo en torno a una pasión común: el baloncesto.

Así, en la temporada 2012-2013 correspondiente al 25 aniversario, Mungia ST ha contado con nueve equipos, tanto masculinos como femeninos, a partir de los catorce años. Entre sus objetivos principales además, está el de apoyar a los centros escolares en la organización de sus equipos de baloncesto, para crear una cantera adecuada y de calidad que sirva como trampolín



para el futuro del baloncesto vizcaíno. Así, de cara al 2014, organizarán el campeonato de baloncesto escolar San Pedro.

Pero para afrontar el futuro es necesario siempre conocer nuestro pasado, sin olvidarlo ni dejarlo atrás. Por eso es de vital importancia la participación de todos, empezando por los que vieron cómo el club daba sus primeros pasos. El entusiasta y animoso equipo de veteranos surgido en el año 2005 es gran ejemplo de ello: cada año organizan dos partidos, uno en junio dentro del programa de fiestas de San Pedro y otro en Navidad. El año del 25 aniversario además, los veteranos dieron un paso adelante con la celebración el día 5 de octubre en el Polideportivo de Mungia del partido internacional de veteranos Mungia-Galway (Irlanda) cuyo partido de vuelta se celebró el 22 febrero en Galway. Además de todo ello, participan en todas las actividades del club y entre sus planes más inmediatos está el de conseguir un equipo de mujeres veteranas.

Los veteranos son el ejemplo a seguir por los más jóvenes. Representan lo que debe ser el deporte: diversión, disfrute, ilusión. ■

## Mungiako gazteek badaukie zer esanik

### Los jóvenes tienen la palabra en Mungia

El año pasado se llevaron a cabo diversas acciones dirigidas a la juventud de Mungia: se firmó el proyecto Gaztedi Mungialdea con la Diputación, la Mancomunidad de Uribe-Butro y el Ayuntamiento de Bakio y se pusieron en marcha iniciativas relacionadas con el empleo, la vivienda, la construcción social e incidiendo en la participación de los jóvenes. Este año se pretende seguir por ese camino, además de organizar independientemente multitud de actividades por medio del Gazteguneko de Mungia.

2013an Mungiako Udalak *Gaztedi Mungialdea* hitzarmena sinatu eban Bizkaiko Foru Aldundiagaz, Uribe-Butroeko Mankomunitateagaz eta Bakioko Udalagaz batera. Hitzarmen horren helburua honakoa zan: Mungialdean *Gaztedi Bizia* egitasmoaren barnean gazteripolitika integrala hasi, sustatu eta garatzea. Horrela, hitzarmen honen

bitartez gazteei zuzendutako jarduerak eta ekintzak abiatu gura dira, Mungiak eskualde-burua dala. Jarduerok Foru Aldundiko Gazteria Sailak ezarritako ardatzetan dago oinarrituta, hau da, enplegua, etxebizitza, gizarte-erakitzea eta parte-hartzea.

Mungiako Udalerri jagokonean, ondoko ekimenak jarri dira martxan:

Enpleguaren arloan, prestakuntza eta enplegarritasunaren aldeko apustua egingo da: Gazteguneko hainbat hitzaldi antolatu ziran, Mungialdeko Behargintzako teknikoaren laguntzagaz, enpleguaren eta prestakuntzaren inguruan dagozan aukerak ezagutzera emoteko. Bestalde, monitore eta entrenatzaileentzako lan-boltsa bat eratu da, eta *Mungia Beharsarea* enplegu portalean bere sartu da (Bakioko Udalagaz eta Uribe-Butroeko Mankomunitateagaz batera sortutako proiektua da).

Gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan izanda, gazteei alternatiba bat eskaintzeko, pisuak konpartitzeko boltsa bat bere sortu dogu.

Gazteen artean baloreak sustatzeko bidean, barriz, egitasmo bi jarri dira martxan: batetik, interneten erabilera arduratsu baten aldeko kanpaina egin da, bertan diran arriskuen barri emoten dauena. Bestetik, kale-hezitzaile bat ekarri da Mungiara: Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Partzuergoaren barruan dagozan udalerri guztietan lan egingo dauan hezitzaile horren bitartez, eskualdeko gazteen errealitatea ezagutu gura da, eta indar berezia jarriko da aisialdian eta gazte-lokaletan eta antzeko eremuetan.

Parte-hartzea bere gai garrantzitsua da eskualdeko gazteriarantz. Horretarako, Ideia Jam gazte Erabaki Party, World-Cafe moduko bat antolatu zan Torrebillela Kultur Etxean, saio bitan hain zuzen bere: lehenengoan enplegua eta etxebizitza landu ziran eta bigarrean, barriz, aisialdia eta mugikortasuna izan ziran gai nagusiak. Eskualde osoko gazteei zabalik egin zan deialdia, izan bere, Mankomunitatea eta Bakioko Udalagaz batera abiatu da ekimen hau. Jardunaldiotan gazteek ekarritako hainbat proposamen bildu ziran, eta etorkizunera begira horreetariko batzuk martxan ipintea da helburua.

Aurton Aldundiarekin hitzarmena berresteko asmoz gabilz lanean; gazteei bideratutako hainbat ekintza diseinatzen gabilz, batez bere enplegua eta prestakuntzaren inguruan, baina beste arlo batzuk alde batera utzi barik, eta lehen aitaturako World Cafetik eratorritako ondorioei jarraituta.

Hortik aparte, Mungiako Udalak bere kabuz bere beste jarduerak asko jarri ditu martxan, hain zuzen bere Gazteguneko eskaintzen dituan zerbitzuetan plazaratzen diranak. Esate baterako, Magik txapelketak, kontzertuak, bardintasanari buruzko jardunaldiak, eta abar. ■



## Herritarren proposamenak euskeraren aholku batzordean

El Consejo Asesor general del Euskera se reunió el pasado 5 de febrero por primera vez tras su reciente cambio de estructura. Diversos agentes de Mungia debatieron para hablar sobre las acciones llevadas a cabo y que quedan por hacer en torno al euskera, así como para realizar proposiciones que el equipo técnico analizará y gestionará debidamente.

lotuak izan ziran: Mungiako kaleetan, plaza-bueltan, kirol-giroan edo merkataritza eta ostalaritzan euskerari beste bultzada bat emon behar jakola adierazo eben askok. Batzarraren esandako guztia jaso eta hartu eben kontuan arduradun teknikoek; proposamenok gero aztertu egingo dira eta, ahal dan neurrian, ahalik eta modurik egokienean bideratu.

Euskeraren Aholku Batzordearen egitura barria (talde bik osatua: talde teknikoak eta talde orokorrak) 2012 onartu zan arren, 2011n hasi ziran diseinu-lanak, izan bere, urte horretako udagoiengan Udalak antolatu zituan Euskera Foroetan ordura arte Euskera Batzarrak izandako formatua aldatu beharra egoala erabagi zan; hau da, euskeraren inguruko herriko lanei jarraipena egiteko batzorde dinamikoago eta eraginkorrago sortu behar zala. Horri jarraituta, 2012ko zemendiaren 30ean Udaltzarak aho batez onartu eban Euskeraren Aholku Batzarraren egitura barria.

Zezeilaren bostean batzartu zan Mugire Txokoan Euskeraren Aholku Batzordearen talde orokorra, egitura sortu barrikoa. Bertan batu ziran herriko eragileak, alkarteetako ordezkariak eta arlo ezberdinetako beste hainbat mungiar; hain zuzen bere, euskeraren inguruan egin diran eta egiteko diran ekimenen ganean eretxia emon eta euren proposamenak egiteko.

Batzarrean, danetariko proposamenak entzun ziran, baina gehienak gure hizkuntzaren erabileraren inguruko kezka

Talde teknikoak 8 bider batzartu zan 2013an zehar; batzarrotan urteko euskera planaren ganeko puntu batzuk landu, aholkuak emon eta ekintza barrietarako proposamenak egin ziran. Izan bere, urtean batzar 2 edo 3 eginda, ez dago aukerarik planean aitatzen diran guztiak landu ahal izateko. Talde orokorra, ostera, aurtengo urtarrilean osatu eta zezeilean batzartu da lehenengoz; talde horrek urtean batzar 1 edo, gehienez bere, 2 egingo ditu, eta berorren helburua, hasieran aitatu denez, herriko eragileei informazioa emotea eta talde teknikoan landu leitekezan eretxi eta proposamenen ganeko informazioa jasotea da. Talde orokor horren egitura diseinatuta dagoan arren, ez da talde itxia, eta inork parte hartzeko interesik euki ezker (alkarte, talde edo norbanako modura), Euskera Sailerak mezu bat bialtzea baino ez dauka: [euskera@mungia.org](mailto:euskera@mungia.org)

Mungiako Udalak 2003an onartu eban herrian euskeraren erabilera bultzatzeko lehenengo plan integrala (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia-EBPN). Eta plan ha diseinatzeko eta osteko jarraipena egiteko sortu zan Aholku batzarra (Euskera Batzarra izenekoa) 2002an. Harrezkero, urtean-urtean prestau eta garatu da Biziberritze Plana, beti bere, batzorde horren laguntzagaz.

Urtero egokitu eta moldatu beharreko plan horretan euskeraren erabilera normalizatzeko beharrezkotzat jotzen diran arlo guztiak lantzen dira, baktotxerako neurri zehatzak ezarrita: sentiberatze kanpainak gurasoentzat, euskerako ikasleentzako diru-laguntzak, alkarteakazko alkarlana, kirolerako hitzarmena, euskerazko ikuskizunak, udako kanpamenduak, literatur lehiaketak, merkataritza eta ostalarientzako zerbitzuak, ondarea batu eta zabaldu... ■



## Gure esku dago-ren mosaikoa Mungian

Ehundazak herritarrak batu ziran frontoian erabagiteko eskubidea aldarrikatzeko.



Alrededor de 400 personas se reunieron el pasado 25 de enero en el frontón municipal para crear un mosaico humano, una mano azul que representa que el futuro de este Pueblo está en manos del mismo. La plataforma Gure esku dago ha programado diversas acciones en este sentido, incluida una cadena humana que unirá Iruñea con Durango y en la que Mungia aportará dos kilómetros.

Mungialdeko herritarren esku bere badago. Eta halan erakutsi gura izan eben urtarrilaren 25ean udal frontoian alkatu ziran 400en bat lagunek. Euskal Herriaren mapa osotu eta bizia emon eutsien

“Gure Esku Dago” egitasmo herritarra irudikatzen dauen esku urdinari. Eguraldi txarrak, eurik eta haizeak ez eben Mungiako eta albo-herrietako lagunengoa gogoa hotzitu, eta plazarako prestatuta egoan ekimena frontoian egin zan. Mungiarrekaz batera, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Arrieta, Bakio, Gatika, Jatabe eta Laukizetik etorritako hainbat herritar izan zan frontoian.

“Gure Esku dago” dinamika 2013ko bagilaren 8an aurkeztu zan Euskal Herri mailan. Eta Mungia izan zan herri plataforma aurkeztu eban lehenengo udalerrria, egun horretan bertan, arratsaldean. Horregaitik izan da lehenengo herri mailan Euskal Herriaren erabagiteko eskubidearen aldeko ekitaldiak bideratzeko orduan

bere, eta herriko plataformako kideak sano pozik dagoz ardura hori ondo hartu eta bete dabelako. Helburua jentea aktibatzea dala dinoe, talde plurala osotutea aldarrikapen demokratiko horren inguruan. Hitzaldiak bere antolatu dabez egunotan Torrebillera Kultur Etxean, autodeterminazioaren eta European abian dagozan prozesu nazionalen ganekoak, eta jentearen erantzuna sano ona izan da.

Hurrengo jardura maiatzerako daukie prestatuta: Foruen plazan “Dantza Zati Bat” saioa aurkeztuko dabe. Eta bagilaren 8rako, Durango eta Iruñea lotuko dituan gizakatean bi kilometro beteteko konpromisoa hartu dau Mungialdeak. ■

# Mungiarrok, garai gogorrenetan bere alkar laguntzen

## Los y las Mungiarros muestran su solidaridad con sus convecinos en los momentos difíciles

Un vecino del barrio mungiarra de Markaida desapareció sin dejar rastro el pasado 22 de febrero tras salir a dar un paseo por los alrededores de su domicilio. Tras una intensa búsqueda que se alargó durante seis días y que reunió a cientos de personas entre equipos de emergencia y voluntarios, el 27 de febrero se encontró final y lamentablemente a Simón sin vida.

Simón Arranz Alonso, de 82 años, salió con sus perros alrededor de las doce del mediodía del sábado,

pero nunca volvió. La familia, al ver que no regresaba, buscó con sus propios medios al hombre durante unas horas, hasta que a media tarde dieron el aviso a SOS Deiak y se organizó un dispositivo para seguir su rastro. A este dispositivo se incorporó desde el primer momento la alcaldesa de Mungia, Izaskun Uriagereka (quién se mantuvo a pie del operativo durante los días que duró) y los y las concejales/es del equipo de gobierno municipal. En este amplio despliegue participaron

Emergencias del Gobierno vasco, Ertzaintza, Cruz Roja, Dya, Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi, Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, la Policía Municipal de Mungia, los trabajadores del Ayuntamiento y de Astiunerako Udal Erakundea, el grupo de Protección Civil de Mungia, los y las componentes de Andui Mendigoizale Taldea, y tantas y tantos voluntarias y voluntarios que ayudaron de forma incansable en la búsqueda de Simón durante días.



Markaida auzoko gizon bat zezeilaren 22an desagertu zan bere etxe ingurutik paseoan urten eta gero. Sei egunetan larrialdietarako taldeak eta bolondresak osatutako ehundaka personako ekipoak goizerik gauera lotu barik bila ibili ostean, zezeilaren 27an Simon Arranz Alonso 82 urteko mungiarra aurkitu eben, nahi ez gendun moduan, hilik.

Simon eguerdi aldera urten zan etxetik bere txakurrekin, paseoan, betiko legez. Bueltan ez etorrela eta senideak bere bila hasi ziran, baina arratsaldean SOS Deiak-era deitu eben, topau ezinik. Orduan larrialdietarako dispositibo bat jarri zan martxan, ehundaka persona bilduta. Bertan Izaskun Uriagereka Mungiako alkatea eta

udal gobernuko zinegotziak izan ziren hasieratik bukaeraraino, bilaketa-lanetan laguntzen, hainbat erakunde eta talderekin batera: Eusko Jaurlaritzako Larrialdietakoak, Ertzaintza, Gurutze Gorria, Dya, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldekoak, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila; Mungiako gure Udaltzaingoa, Udaletxeko eta Astiunerako Udal Erakundeko langileak, Mungiako Babes Zibileko Taldea, Andui Mendigoizale Taldeko kideak, eta egunotan gau eta egun Simonen bila aritu izan ziran mungiar bolondresak.

Udal Korporazioaren izenean, guztiei eskerrak emon gura deuseguz aste horretan erakutsitako esfortzu, gogo eta alkartasunagaitik. ■



Mungiako BABEZ ZIBILEKO BOLONDRESA izan gura badozu idatzi helbide elektronikoa honetara: [bzmungia@mungia.org](mailto:bzmungia@mungia.org)

Si quieres ser VOLUNTARIO de la Agrupación de PROTECCIÓN CIVIL Municipal de Mungia escribe un correo electrónico a: [bzmungia@mungia.org](mailto:bzmungia@mungia.org)

